



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 13koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2017-2018ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka-eskaeren ebazpena ematen du.

Hezkuntzako sailburuak, 2017ko ekainaren 28ko aginduaren bitartez (2017ko ekainaren 30eko EHAA), 2017-2018ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdia egin zuen.

Hautaketa-batzordeak, 2018ko ekainaren 12an, aurkeztutako bikaintasun akademikoko beken eskaeren ebazpen-proposamena aurkeztu egin dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa.- Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena-zenbakia dutenei beka ematea (I. Eranskina), guztira 120.000 €koa.

Bigarrena.- Baldintzak betetzen ez dituzten edo beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea (II. Eranskina).

Hirugarrena.- Interesatuek, gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 13a.

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA  
KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA**

**Miren Artaraz Miñón**